

Euskaltzaindiaren adierazpena Iparraldeko kolegioen erreformaz

Frantziako Hezkuntza Ministerioak ezarri nahi duen kolegioen erreformak kezka sortu du Ipar Euskal Herriko euskarazko irakasleen artean. Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak, azaroaren 24an egindako bileran, kezka hori bere egin eta adierazpen bat onartu du. Honela dio:

Euskaltzaindia eta kolegioetako erreforma

Azken aste horietan, beren kezkak adieraziak dituzte Iparraldeko euskarazko irakasleek, heldu den urtean indarrean jarri behar den erreformak arrangurak sorrarazi baititu. Euskaltzaindiak arrangura hori bere egiten du.

Euskararen egoera zaintzea, euskal hiztunen hizkuntza-eskubideak zaintzea du helburu Euskaltzaindiak. Horrengatik, Euskaltzaindia ez dagoke isilik erreforma horrek ekar litzakeen ondorio tzarren aitzinean, kolegioan euskarari erreformak eman nahi dion lekua mugatua izanen dela ohartzekoa baita.

Euskaltzaindiaren arabera, euskara ikasi nahi duten ikasleak (eta irakasleen gurasoak) segur izan behar dira hasitako euskarazko irakaskuntzak segida eta jarraipena osoa izanen duela 6.etik lizeoraino. Euskararen irakaskuntza maila batetik bestera ez dela desagertuko bermatu beharko du erreformak.

Aitzitik, mugatua izan gabe, euskararen irakaskuntzak engoitik indar berezi bat merezi du. Ikasleek euskara ikasteko, norberak bere euskara aberas-teko, ahalbideak eman behar zaizkie Euskal Herriko ikasle guziei, euskara ikasi nahi dutenaz geroz. Ikasleak eskolatik elebidun oso eta euskara hauta baten jabe izatea da gure helburu.

Ondoko puntuei erreformak erantzun baikorra eman beharko die:

- Ikasleek Batxilergoraino eta zikloka erdietsi behar dituzten gaitasunak, jakitateak eta kultura-helburuak zehaztea.
- Helburu horietara heltzeko programak, sail orokorrean nola Lanbide Heziketan, finkatzea.
- Ziklo bakoitzaren bukaerako ebaluazio eta egiaztatze moldeak antolatzea.
- Helburuen eta edukien araberako ikastresnak osatzea eta biderkatzea.
- Irakasleen oinarrizko formakuntza eta formakuntza jarraikia hedatzea.

Zeinahi irakasleren lana lagundu behar baldin bada, are gehiago euskarazko irakasleen lana laguntzekoa da, baldintza zailetan ari baitira urtetik urtera. Eta euskarazko irakasleek egiten duten hats luzeko lana Euskaltzaindiak txalotzen du. Ordu da ateria ikus dezaten hemendik aitzina.

Baina han-hemenka, Hezkuntza Nazionalarengandik berrikitan emanak izan diren erantzunek gure dudak eta kezak ez dituzte batere ohildu edo urrundu.

Beraz, orain arte euskararen alde egin diren urrats guztiak ez daitezen suntsituak izan eta hemendik aitzina euskararen irakaskuntzak etorkizun argia izan dezan neurri erabakigarriak eskatzen ditu Euskaltzaindiak. Euskarak bere tokia eskolan ongi arautua izanen duela segurtatu behar du erreformak.

Gizarte mailan eta eremu orotako adierazpide eta tresna izan behar den euskara prestatzen eta gaitzen ari da Euskaltzaindia. Euskararen ofizialtasu-

na eskatzen dugu bide hori erraza izan dadin. Anartean, erran gabe doa euskararen irakaskuntzari laguntza emateko prest dagoela osoki Euskaltzaindia».

Baiona, 2015-11-24